NORTASUNARI BURUZKO ADJEKTIBOAK: IZANAK IZENA DU *

Luis Sainz de Murieta Alvarez
EHUko irakaslea

Euskaraz nortasunaren ezaugarriak azaltzeko erabiltzen den lexikoa (adjektiboak batez ere) eta atzetik dauden dimentsio nagusiak aztertzen dira, hizkuntzak nortasuna ikertzeko marko egokia eskaintzen digulakoan gaudelako. Adjektiboak azalerazteko asmoz, alde batetik, Rep-testaren moldaketa bat erabili dugu eta, bestetik, 38 nobelatan pertsonaiak psikologikoki deskribatzeko erabilitako hitzak aztertu ditugu. Hitzen atzetik dauden dimentsioak identifikatzeko helburuz, proba bat eratu dugu (diferentzial semantiko delakoaren antzekoa) eta, koerlazioen analisi faktoriala eginez, zenbait dimentsio aurkitu ditugu. Rep-testa Psikologi Fakultateko bigarren kurtsoko 135 lagunek burutu zuten eta guk sortutako proba bosgarren kurtsoko 42 ikaslek. Emaitzak beste zenbait kulturatan aurkitutakoekin bat datoz.

Sarrera

Cattellen ustetan (1957) nortasunari buruzko ezaugarri guztien egiazko iturri bakarra hizkuntzan dugu. Litekeena da jokabidearen alderdi gehienak edo guztiak noizbait, denboran zehar, izendatuak izatea. Errealitatea zer den eta nola uler daitekeenari buruzko arazo filosofikoetan sartu gabe, bidezkoa da esatea existentzia duten gauzek izena dutela eta izenik ez duten gauzek existentziarik ez dutela. Nahiz eta idatzi duguna filosofikoki oso eztabaidagarria izan, psikologiaren ikuspuntutik errazago onar dezakegu: psikologian errealitatea baino gehiago, pertsonak errealitatea nola ikusten duen interesatzen zaigu; inguru fisikoaz baino gehiago inguru psikologikoaz arduratzen da, beraz.

Nortasunaren ezaugarriak azaltzeko erabiltzen diren hitzez (adjektiboak edo izenlagunak batez ere) arduratzen den esparru hau, Cattellek *Hizkuntzaren Nortasunaren Esparrua* izendatu zuen, eta esparru hau nortasunaren ikerketa zientifikoan oinarri nagusienetarikoa zela baieztatu zuen; hizkuntzak nortasuna ikertze-

* *Uztaro* aldizkarian argitaratua (20. zenbakia, 105-118)

ko marko egokia eskaintzen digu.

Pertsonen egitura psikologikoa aztertzeko, pertsona horiek nortasunari buruz dituzten kontzeptuak edo konstruktuak azaldu behar dira; gainera, konstruktu, ideia edo kontzeptu horiek elkarren artean nola erlazionatzen diren jakinez gero, atzetik edo azalean ez dauden dimentsio nagusiak agertaraziko ditugu, nortasunaren ardatzak izango direnak. Kulturkide gehienok nortasunaz antzeko sinesmenak izaten ditugunez (horregatik gara kulturkide), kultura horren dimentsio edo ardatz nagusiak ezagutu ditzakegu. Ardatz hauek *Nortasunaren Teoria Inplizituak* eratzen dituzte.

Ikerketa honen lehenengo helburua euskaraz nortasuna azaltzeko erabiltzen diren kontzeptuak zeintzuk diren jakitea izan da, eta bigarrena, nortasunaren ardatz edo dimentsio nagusiak ezagutzeko, kontzeptu horiek elkarren artean nola erlazionatzen diren iradokitzea. Euskal psikologiara hurbiltzeko derrigorrezkoa iruditu zitzaigun hizkuntzak nortasunaz esaten diguna ikertzea. Kulturak, nortasuna eratzerakoan, garrantzi handia du, eta modu berean, kulturaren barnean hizkuntzaren ekarpena ez da makala.

Metodoa

Helburuei heltzeko bi pauso eman ditugu: hasieran nortasuna deskribatzeko gaur gehienbat erabili ohi diren adjektiboak aztertu ditugu, eta ondoren, dimentsio nagusiak ezagutzeko asmoz, adjektibo edo nolakotasun hauek elkarren artean erlazionatzeko moduari ekin diogu.

Lan hau Psikologiaren barnean kokatu nahi izan dugu eta horregatik ez zaigu interesatu geure hizkuntzan nortasuna adierazteko zenbat adjektibo dauden jakitea (hiztegi batean aurki zitezkeenak), gaur egun gehien erabiltzen direnak ezagutzea baizik. Gure ardura izan da gaurko nortasuna.

Zer nolako adjektibo erabili ohi diren jakiteko bi bide aukeratu genituen:

a) Rep-testaz baliatuz, Psikologia ikasten ari diren 135 ikaslek erabilitako adjektiboak (ikasle bakoitzaren kasuan, hamar).

b) Hogei eta hemezortzi nobelatan pertsonaiak psikologikoki deskribatzeko azaldutako adjektiboak.

Rep-testa

George A. Kellyk 1955 urtean *Konstruktu Pertsonalen Teoria* plazaratu zuen, gaurko psikologia kognitiboaren aitzindaria izan zena. Teoria honen arabera, nahiz

eta errealitateak edo mundu fisikoak existentzia independentea izan, pertsonak zeharbidez heltzen dio soilik, prozesu pertzeptibo eta kognitiboen bidez. Beraz, gure baitan errealitate horren errepresentazioa eratzen dugu, eta errepresentazio hori egiteko konstruktu pertsonalez (aldakorrak direnak) baliatzen gara. Konstruktu hauek errealitateari buruzko aurresanak egiteko erabiltzen dira, eta horiei esker modu egokian funtzionatzeko gaitasuna dugu. Pertsona bakoitzak zer nolako konstruktuak erabiltzen dituen jakiteko, Kellyk Rep-testa asmatu zuen, eta horren egokitzapen bat erabili dugu guk.

Rep-testean subjektuak bere ustez garrantzitsuak diren zenbait pertsonaren izenak idazten ditu (hamar gure kasuan) eta eskatzen zaio pertsona horien arteko zenbait antzekotasun eta desberdintasun adierazteko (hamar gure kasuan eta errepikatu ezin direnak), nortasunari buruzko adjektibo edo konstruktuak erabiliz beti. Behin pertsonen izenak eta konstruktuak adierazi ondoren, aukeratutako pertsona bakoitza ebaluatu behar du berak idatzitako konstruktuen arabera. Alde batetik, eta gure kasuan garrantzitsuena, erabiltzen dituen konstruktuak ez dira guk emandakoak, baizik eta berak asmatutakoak; hots, ez dira gure konstruktuak baizik eta bereak. Beste aldetik, ebaluazioak bukatu ondoren, analisi matematiko xume batzuk eginez, adjektibo edo konstruktu bakoitzaren pisua jakin dezakegu. Izan ere, pertsona batek zer konstruktu sistema erabiltzen duen, eta konstruktu horiek berarentzat zenbaterainoko garrantzia duten jakin daiteke.

Rep-testetik lau motatako datuak atera ditugu:

- *konstruktuen maiztasuna*: 135 pertsonak (109 emakumezko eta 26 gizonezko) adierazitako 1350 adjektiboen artean zein diren maizkoenak, erabilienak. Hemen alderdi kuantitatiboak dauka garrantzia.

- *konstruktuen polarizazioa*: muturreko puntuazioak zein adjektiborekin erabiltzen diren ikusiko dugu. Pertsonak ebaluatzerakoan 1etik 7rako puntuazioa erabil daiteke; 1a eta 7a muturreko puntuazioak dira. Adjektibo batzuetan muturreko puntuazioak azaltzen dira eta besteetan erdikoak. Bonariusek (1977) puntako puntuazioak konstruktuaren garrantziarekin erlazionatu zituen: adjektiboren batek puntako puntuazio asko baditu, oso esanguratsua gertatuko zaio ebaluatzaileari. Ebaluatzaileak oso argi ikusten du pertsona adjektiboaren nolakotasunaren jabe dela.

- *konstruktuen intentsitatea*: neurri hau Bannisterrek (1960) erabili zuen. Indize hau lortzen da konstruktu batek beste konstruktu guztiekin dituen koerlazioak aztertuz. Konstrukturen bat besteekin oso erlazionatua egoteak (koerlazio altuak) bera aldatzean besteak ere aldatuko direla esan nahi du. Beraz, konstruktu horren aldakuntzak beste edozeinenak baino garrantzi handiagoa izango du: koerlazioak, azken finean, kobariazioak neurtzen ditu. Neurri honek adierazten du konstruktua-

ren zentralitatea; intentsitate handia badu konstruktuen sistemaren erdigunean egongo da, eta baxua izanez gero, berriz, periferian.

Gure ustez hau da indizerik garrantzitsuena eta legezkoa da berau Roschen (1975) *prototipizitate* kontzeptuarekin parekatzea.

- *konstruktuen bereizteko gaitasuna*: indize hau Landfieldek (1977) proposatu zuen konstruktuen integrazioa aztertzeko asmoz, baina gaur egun jatorrizko interpretazioa zalantzan jarri da (Feixas, 1988) eta konstruktuen zorroztasuna neurtzen bide du. Indize hau hurrengo formularekin kalkulatzen da :

BP = i(W-w)/j non:

BP	=	Bereizteko gaitasuna.
I	=	Puntuazio desberdinen kopurua.
W	=	Puntuaziorik altuena.
W	=	Puntuaziorik baxuena.
j	=	Puntuazio guztien kopurua.

Puntuazio altua izateak konstruktu zorrotza dela adierazten du, hots, konstruktu hori, pertsonak (edo objektuak) ebaluatzerakoan, diskriminatzeko edo bereizteko egokia dela. Pertsona guztiei konstruktu batean puntuazio berdina emateak esan nahi du konstruktu horrekin aukeratutako pertsonak ezin ditugula bereizi: edertasuna neurtu nahi badugu eta guztiei puntuazio berdina ematen badiegu, gure edertasun-kontzeptua zorrotza ez dela esan dezakegu. Formulan azaltzen den bezala, puntuazio desberdinen kopurua, puntuaziorik altuena, puntuaziorik baxuena eta puntuazio guztien kopurua kontutan hartzen dira.

Literatura

Egokia iritzi genion, geure nortasunari heltzeko, euskal nobelagileek erabiltzen dituzten izenlagun psikologikoak aztertzeari. Psikologook psikologiaz (salbuespena ez gara eta) beste arlotako pertsonek esaten dutena gutxiesteko joera nabaria dugu, tamalez, gure ustez. Nahiz eta psikologiak estatus zientifikoa azken bi mende hauetan lortu duen, gizakia gizaki denez geroztik, psikologiaz arduratu da kontzeptu desberdinak sortuz, eta idazten hasi zen geroztik, nortasuna deskribatzeko hitzak asmatu eta erabili ditu. Arlo hau sakonkien aztertu dutenak filosofo edota literaturgileak izan ditugu. Ez zen kasualitatea izan mende honen hasieran, Europan batik bat, greziar tragediek psikologian eta psikoanalisian bereziki izandako eragina. Freud konturatu zen Sofokles tragediagileak mekanismo psikologikoak sakonki aztertu zituela, eta austriarrak duela bi mila urte baino gehiago asmatutako konplexuak psikoanalisiaren mamian kokatu zituen.

Bestalde, nobela gehienetan, edo askotan bederen, oso garrantzitsua izan ohi zaio idazleari pertsonaien karakterizazio psikologikoa. Pertsonaiak psikologikoki karakterizatzeko, idazlea berak erabiltzen dituen kontzeptu psikologikoez baliatzen da; zilegi da esatea nobela baten kontzeptu psikologikoen bidez idazlearen norta-sun-teoria-inplizitua azter dezakegula, nobela guztiek idazlearen barneko mundua islatzen baitute. Zilegi da ere idazlearen barneko mundu hori bere kulturaren isla dela suposatzea. Hortik gure apustua.

1. Taula

1. Alaba	Gotzon Garate
2. Ametsetan galduta	Xabier Gereño
3. Andereño	Xabier Gereño
4. Aspaldian maite zaitudalako	Arantxa Urretabizkaia
5. Babilonia	Joan Mari Irigoien
6. Behi euskaldun baten memoriak	Bernardo Atxaga
7. Bi anai	Bernardo Atxaga
8. Bi letter jaso nituen	Bernardo Atxaga
9. Egunero hasten delako	Ramón Saizarbitoria
10. Elizondoko Eskutitzak	Gotzon Garate
11. Etorriko haiz nirekin?	M. Hernandez Abaitua
12. Exkixu	Txillardegi
13. Garoa	Txomin Agirre
14. Gizona bere bakardadean	Bernardo Atxaga
15. Goizuetako ezkongaiak	Gotzon Garate
16. Haltzak badu bihotzik	Iñaki Mendiguren
17. Hamabost egun Urgain´en	J.A. Loidi Bizkarrondo
18. Hamaseigarren aidanez	Anjel Lertxundi
19. Haur besoetakoa	Jon Mirande
20. Haurgintza-minetan	Mikel Zarate
21. Irene (tempo di adagio)	Pako Aristi
22. Itsasoak ez du esperantzarik	Luis Aranburu Altuna
23. Izurri berria	Gotzon Garate
24. Jolasean	Joxean Sagastizabal
25. Kazetari bat iheska	Imanol Zaldua
26. Kcappo	Pako Aristi
27. Kutzidazu bidea	Joxean Sagastizabal
28. Leturiaren egunkari izkutua	Txillardegi
29. Londresen nago aitonarekin	Joxe Mari Iturralde
30. Mafiak hil zuen	Xabier Gereño
31. Mugetan	Hasier Etxebarria
32. Ni naizen hori	Karlos Gorrindo
33. Non dago Stalin?	Xabier Montoia
34. Olagarroa	Mario Onaindia
35. Peru Leartzako	Txillardegi
36. Saturno	Arantxa Urretabizkaia
37. Zergatik Panpox?	Arantxa Urretabizkaia
38. 110.Street-eko geltokia	Iñaki Zabaleta Urkiola

Ikerketa honetan 38 nobelatan azaldutako psikologiarekin lotutako hitzak aztertu ditugu. Nobela hauek bigarren kurtsoko psikologiako ikasleek (1994-1995 ikasturtekoak) irakurriak izan dira eta beraiek aukeratuak. Lanaren helburua euskaraz gehien erabiltzen diren nortasunari buruzko hitzak ezagutzea zen, gero hitz horien arteko koerlazioak aztertuz, atzetik dauden ardatz, faktore, dimentsio edota irizpide nagusiak aurkitzeko asmoz. Esan dugun bezala, nobelen aukeraketa egiteko ikasleen irizpidea hartu genuen oinarritzat eta erabat askea izan zen. Horren ondorioz, kalitatezko autore eta nobela batzuen hutsunea nabaria da.

Emaitzak

Rep-testa

Bigarren taulan Rep-testetik ateratako datuak azaltzen ditugu. Lehenengo zutabean gehien erabiltzen diren 37 adjektiboak agertzen dira, maiztasunaren arabera ordenatuak. Bigarrenean, maiztasun absolutu eta erlatiboak. Orokorki, 289 adjektibo agertu ziren baina soilik hartu genituen kontutan 10 pertsonek baino gehiagok erabili izandakoak. Hala ere, 37 hauen maiztasunak aztertu ondoren, maiztasun guztiaren %62a suposatzen dutela esan beharra dago.

Azpimarratzekoa da izenlagun gehienak positiboak direla. Testa planteatu genuen moduan posible zen konstruktuaren edozein mutur hartzea, baina nagusiki mutur positiboa aukeratu zuten.

Ikus daitekeenez *ireki*, *alai* eta *atsegin* adjektiboak dira maizkoenak, eta hirurak beste pertsonekin harremanak izateko moduarekin lotuta daude.

Hirugarren zutabean polarizazioaren araberako ordena agertzen da, 1etik 37ra hedatuz. Adjektibo polarizatuenak *lagunkoi*, *konfidantzazko*, *leial*, *maliziadun, egiati*... izan dira, eta polarizazio txikienak *baikor, ausarti, azkar, isil, jeniodun*... adjektiboek dituzte. Muturreko puntuazio asko dituzten izenlagunak oso esanguratsuak gertatzen zaizkio ebaluatzaileari, adjektiboen nolakotasuna oso argi izan ohi duelako, erdibiderik ez dagoelarik, hots, zuria edo beltza bezala ikusten da ebaluazio objektua.

Laugarren zutabean hitzak intentsitatearen arabera daude ordenatuta, izenlagunen zentralitatearen arabera, beraz. Intentsitate handia duten izenlagunak sistemaren erdigunean egongo dira, eta txikia dutenak periferian, azalaldean. Intentsitate handienak *atsegin, jator, lagunkoi, maitagarri, on*... adjektiboek izan dituzte eta txikienak *aktibo, lasai, lotsati, urduri, isil*... delakoek.

Bosgarren zutabean gaitasunari dagokion ordena azaltzen zaigu. Aurrekoen moduan 1etik 37ra hedatuz. Esan genuen bezala, gaitasun-indizeak adjektiboen

zorroztasuna neurtzen du, zehaztasuna. Gaitasun handia izateak adjektibo horrekin ebaluazio zehatzak egiten ditugula adierazten du. Gaitasun handia izan dute *paziente, ulerkor, maitagarri, harro, atsegin*... izenlagunek, eta txikia *aktibo, ardurati, azkar, serio, alai*... delakoek.

2. Taula

Adjektiboak	Maiztasuna %	Polarizazioa (ordena)	Intentsitatea (ordena)	Gaitasuna (ordena)
1. Ireki	58 / %43	26	20	24
2. Alai	54 / %40	30	15	33
3. Atsegin	49 / %36	10	1	5
4. Maitagarri	46 / %34	6	4	3
5. Burugogor	42 / %31	27	30	19
6. Eskuzabal	38 / %28	13	9	18
7. Harro	37 / %27	8	13	4
8. Langile	36 / %27	7	26	20
9. Berekoi	35 / %26	11	11	7
10. Azkar	30 / %22	35	22	35
11. Ulerkor	28 / %21	24	8	2
12. Lotsati	28 / %21	31	35	9
13. Jator	27 / %20	15	2	14
14. Lasai	25 / %19	25	36	6
15. Konfidantzazko	25 / %19	2	7	8
16. Maliziadun	23 / %17	4	16	13
17. Ardurati	22 / %16	22	18	36
18. Berritsu	20 / %15	18	28	22
19. Egiati	20 / %15	5	10	16
20. On	19 / %14	20	5	23
21. Zintzo	18 / %13	9	12	29
22. Barnerakoi	18 / %13	17	27	28
23. Sentibera	18 / %13	19	24	17
24. Errespon.tsable	17 / %13	21	19	10
25. Umil	17 / %13	23	25	11
26. Serio	17 / %13	32	21	34
27. Leial	17 / %13	3	6	21
28. Ziur	16 / %12	14	23	26
29. Paziente	15 / %11	16	31	1
30. Lagunkoi	13 / %10	1	3	30
31. Jeniodun	13 / %10	33	32	27
32. Urduri	12 / %9	28	34	15
33. Adimentsu	10 / %7	12	14	25
34. Ausarti	10 / %7	36	29	32
35. Aktibo	10 / %7	29	37	37
36. Isil	10 / %7	34	33	31
37. Baikor	10 / %7	37	17	12

Literatura

Hogei eta hemezortzi nobelatan psikologikoak (zentzu zabalean) kontsidera zitezkeen 546 izenlagun aurkitu genituen. Horietatik aukeratu ditugu gutxienez lau nobelatan azaldutakoak, 131 adjektibo. Adjektibo hauek agerpen maiztasunaren arabera ordenaturik ikus ditzakegu 3. taulan.

Lehenengo zutabean, adjektiboak zenbat nobelatan azaldu diren ikus daiteke; *harro* adjektiboa, esate baterako, 21 nobelatan aurkitu dugu, *ausart* adjektiboa 16tan, etab.

Bigarren zutabean, izenlagun hori azaldu den nobeletan batezbestekoz zenbat aldiz aurkitu dugun ikus daiteke. *Harro*, adibidez, lau baino aldi gehiagotan aurkitu dugu (4.09), *beldurti* sei aldiz (6.33), *atsegin* hitza ez dugu batezbestekoz bi aldiz aurkitu (1.80).

Bigarren eta hirugarren taulen arteko desadostasunak aztertuz, gure ustez azpimarratzekoena *ireki* izenlaguna (maiztasun nagusiena 2. taulan) 3. taulan ez azaltzea dugu. Hala eta guztiz ere, izenlagun honek, nahiz eta maiztasunaren aldetik nagusienetarikoa izan, polarizazio, intentsitate eta gaitasuna txikiak ditu, besteekin konparatuz. Gainera *ireki* hitza ez dugu aurkitu (izenlagun bezala) Azkueren hiztegian, ezta "Diccionario Retana de las Autoridades del Euskera" deitutako hiztegian, eta ezta Sinonimoen Hiztegian, bai ordea Elhuyarreko Hiztegi Entziklopedikoan. Suposa genezake psikologiari dagokionez hitz berri samarra dela, baina gaur egun, zalantzarik gabe, oso erabilia.

Hirugarren taulan agertu ez diren bigarren taulako adjektiboak hauexek dira: *ireki, burugogor, ulerkor, konfidantzazko, maliziadun, ardurati, sentibera, erresponsable, paziente, lagunkoi, adimentsu eta aktibo*. Beste aldetik *beldurti, triste, ero, kezkati, lotsagabe, gaizto, zoriontsu, ahul, alfer, zakar*, etab. hirugarren taulan agertzen dira eta ez bigarrenean. Nabaria denez, lehenengo multzoko adjektiboak gehienbat positiboak (kulturak sozialki onartutakoak) dira, eta bigarren multzokoak negatiboak. Hau goian aipatu dugu dagoenekoz: lagineko pertsonek konstruktuen alde positiboak aukeratu dituzte, eta idazleek, berriz, literaturan polo negatiboak nahiago izan dituzte.

Honen zergatiak asmatzea ez da lan erraza. Bi susmo besterik ez ditugu plazaratuko: alde batetik lagina gazte eta unibertsitarioa dugu (gehienak emakumezkoak), etorkizun oparoko pertsonak, baikorrak beraz. Beste aldetik, idazleek beti nahiago izan dituzte inpaktu handiko hitzak motelak baino, irakurleak arreta gal ez dezan, eta, jakina da, konstruktuen alde negatiboa hunkigarriagoa dela; komunikabideetako berriak irakurri, entzun edo ikusi besterik ez daukagu hori egiaztatzeko. Baita honi atxiki dakioke ere, idazle askoren jatorri klerikala, gizatalde horretan

pekatuak

3. Taula

Harro	2
Lotsati	2
Beldurti	1
Zintzo	1
Alai	1
Ausart	1
Maitagarri	1
Urduri	1
Atsegin	1
Lasai	1
Triste	1
Ero	1
Kezkati	1
Lotsagabe	1
Berritsu	1
Gaizto	1
Zoriontsu	1
Ahul	1
Alfer	1
Serio	1
Zakar	1
Apal	1
Berekoi	1
Eder	1
Hotz	1
Isil	1
Maltzur	1
Etsitu	1
Gaixo	1
Gezurti	1
Gizajo	1
Gogor	1
On	1
Samur	1
Argia	9
Gozo	9
Irrifartsu	9
Jator	9
Koldar	9
Tonto	9
Bakarti	8
Bizi	8
Bizkor	8
Errudun	8
Farretsu	8
Inozo	8
Alu	7

pekatuak (konstruktuen alde negatiboa) izugarrizko garrantzia duelarik.

3. Taula

Harro	21	4.09	% 55	Egoskor	7	2.57	% 18	Bero	4	2.00	% 11
Lotsati	20	3.35	% 53	Ergel	7	2.86	% 18	Biguin	4	2.50	% 11
Beldurti	18	6.33	% 47	Indartsu	7	2.29	% 18	Bihurri	4	1.50	% 11
Zintzo	18	2.44	% 47	Izuti	7	2.14	% 18	Borrokalari	4	1.25	% 11
Alai	17	3.18	% 45	Langile	7	1.57	% 18	Diruzale	4	2.00	% 11
Ausart	16	2.37	% 42	Leial	7	1.43	% 18	Egiati	4	1.00	% 11
Maitagarri	16	2.56	% 42	Sendo	7	1.86	% 18	Epel	4	1.75	% 11
Urduri	16	3.56	% 42	Zuhur	7	2.00	% 18	Ezti	4	2.00	% 11
Atsegin	15	1.80	% 39	Zuzen	7	1.71	% 18	Faltsu	4	1.25	% 11
Lasai	15	5.53	% 39	Ameslari	6	2.50	% 16	Gorrotogarri	4	1.50	% 11
Triste	15	4.07	% 39	Astakilo	6	2.00	% 16	Handizale	4	1.75	% 11
Ero	14	2.78	% 37	Azkar	6	1.50	% 16	Ilun	4	1.00	% 11
Kezkati	14	2.86	% 37	Dotore	6	1.67	% 16	Itxaropentsu	4	1.50	% 11
Lotsagabe	14	1.86	% 37	Fin	6	1.17	% 16	Kaiku	4	2.00	% 11
Berritsu	13	2.61	% 34	Goibel	6	3.50	% 16	Kopetilun	4	2.50	% 11
Gaizto	13	2.61	% 34	Haserrekoi	6	4.67	% 16	Kutun	4	1.25	% 11
Zoriontsu	13	2.46	% 34	Heldu	6	2.33	% 16	Kankailu	4	1.25	% 11
Ahul	12	2.50	% 32	Hiztun	6	1.83	% 16	Lirain	4	1.25	% 11
Alfer	12	2.25	% 32	Kementsu	6	2.33	% 16	Lizun	4	1.00	% 11
Serio	12	3.58	% 32	Leun	6	1.17	% 16	Mardul	4	1.00	% 11
Zakar	12	1.50	% 32	Makal	6	7.00	% 16	Mesfidati	4	1.00	% 11
Apal	11	1.55	% 29	Motel	6	2.33	% 16	Nazkagarri	4	1.00	% 11
Berekoi	11	1.55	% 29	Txar	6	1.50	% 16	Potolo	4	1.50	% 11
Eder	11	2.82	% 29	Umoretsu	6	1.83	% 16	Seguru	4	1.00	% 11
Hotz	11	1.81	% 29	Xarmant	6	1.50	% 16	Sentikor	4	1.00	% 11
Isil	11	1.73	% 29	Zentzudun	6	1.00	% 16	Trebe	4	1.00	% 11
Maltzur	11	2.27	% 29	Zoro	6	1.50	% 16	Umil	4	1.50	% 11
Etsitu	10	3.10	% 26	Adoretsu	5	1.60	% 13	Ustel	4	2.00	% 11
Gaixo	10	1.80	% 26	Arin	5	1.20	% 13	Xelebre	4	1.00	% 11
Gezurti	10	1.60	% 26	Arraro	5	1.20	% 13	Zabal	4	1.00	% 11
Gizajo	10	4.70	% 26	Aspertu	5	2.80	% 13	Zantar	4	1.25	% 11
Gogor	10	2.90	% 26	Doilor	5	1.40	% 13	Zatar	4	8.00	% 11
On	10	3.10	% 26	Eskuzabal	5	2.00	% 13	Zerri	4	1.25	% 11
Samur	10	1.80	% 26	Garbi	5	1.20	% 13	Zital	4	2.00	% 11
Argia	9	1.78	% 24	Gogotsu	5	1.40	% 13	Ziur	4	2.75	% 11
Gozo	9	1.89	% 24	Herabe	5	1.40	% 13	Zoragarri	4	1.75	% 11
Irrifartsu	9	4.11	% 24	Hitzontzi	5	1.60	% 13	Zuri	4	1.25	% 11
Jator	9	4.00	% 24	Jeloskor	5	2.80	% 13				
Koldar	9	1.22	% 24	Lerden	5	1.00	% 13				
Tonto	9	1.44	% 24	Nekatu	5	2.80	% 13				
Bakarti	8	4.12	% 21	Petral	5	2.40	% 13				
Bizi	8	1.75	% 21	Txotxolo	5	2.20	% 13				
Bizkor	8	1.62	% 21	Arrunt	4	1.50	% 11				
Errudun	8	2.00	% 21	Axolagabe	4	1.25	% 11				
Farretsu	8	1.25	% 21	Baikor	4	3.25	% 11				
Inozo	8	2.37	% 21	Baldar	4	1.25	% 11				
Alu	7	2.57	% 18	Barnerakoi	4	2.50	% 11				

Dimentsioak

Izenlagunen atzetik aurkitzen diren dimentsioak aztertzeari ekin genion azken urratsean. Helburu hau bete asmoz, azaldutako izenlagun guztiekin eta, sinonimo eta antonimoak kontutan hartuz, beste proba bat eraiki genuen, *diferentzial semantiko* delakoaren antzekoa. Proba hau egin zuten Psikologi Fakultateko bosgarren mailako ikasle euskaldunek (42 pertsona). Bertan, eranskinean ikus daitekeenez, subjektu bakoitzak emandako izenlagunekin sei animalia ebaluatu behar zituen.

Itemak elkarren artean nola erlazionatzen ziren jakitea genuen helburu, hortik, analisi faktorialaren bidez, adjektiboak zein dimentsioren menpean taldekatzen ziren ezagutzeko asmoz.

Koerlazioaren analisi faktoriala egin ondoren emaitza hauek atera genituen:

1. Faktorea DIMENTSIO MORAL-KULTURALA

Faktore honen bidez bariantzaren %30.4a azalduko genuke. Hau dugu estatistikoki dimentsiorik garrantzitsuena, ikuspuntu kuantitatibo batetik behintzat. 4. taulako izenlagunak aztertuz gero, geure kulturak ontzat edo positibotzat hartzen dituen baloreak ikusiko ditugu. Izenlagun hauek inportantziaren arabera ordenatuta daude, ezkerreko zutabean polo positiboa eta eskuinekoan polo negatiboa dagoelarik.

4.Taula

atsegin, maitagarri, begiko	——	higuingarri, ikustezin
jator, leial, ondratu, zintzo	——	maltzur, gaizto, maliziatsu
sentibera, hunkior, gupibera	——	bihozgogor, musturrastun
xarmangarri, liluragarri	——	nazkagarri, uxagarri
umil, xume, apal	——	harro, harroputz
tolerante, jasanbera	——	jasangogor, intolerante
samur, bihotzabal	——	gogor, gaizto
egiati, egizale	——	gezurti, gezurontzi
zentzudun	——	kaiku, astako, kirten, inozo
fidakor, sinesbera	——	mesfidati, fidagaitz,sinesgaitz
ulerkor, adikor	——	toleragaitz
lagunkoi, elkarkoi, soziagarri	——	elkartezin, ardigaldu, bakarti
azkar, argi, burutsu, adimentsu	——	lelo, labur, tentel, alu
egiazko, zintzo	——	txuri, faltsu, gezurrezko
umoretsu, txispagarri, grazioso	——	aspergarri
bigun, onbera	——	anker, gogor, krudel,gupidagabe
ez bekaizti	——	inbidiatsu, bekaizti

adeitsu, kunplitu, gizalegetsu	——	lotsagabe, aurpegihandi
eskuzabal, emankor	——	berekoi, egoista, burukoi
langile, gogatsu, aktibo, maratz	——	alfer, nagi, pasibo
bizi, bizkor, zalu	——	geldo, motel
heldu, umo	——	heldugabe
zoriontsu, dohatsu, zoritsu	——	dohakabe

2. faktorea PERTSONARTEKO DIMENTSIOA

Pertsonarteko harremanei buruzko dimentsio honekin bariantzaren %14.6a azalduko genuke. Dimentsioa *barnerakoi-kanporakoi* ezaugarriarekin, hots, psikologiaren historian zehar literatura gehien sortarazi duen ezaugarriarekin bat dator. Agertzen diren izenlagunak lehenengo dimentsiokoekin konparatuz psikologikoagoak dira; ez dira baloreak, elkarren artean komunikatzeko jokabideak baizik.

5. Taula

berritsu, berbaldun	——	barnerakoi, introbertitu
berbatsu, hitzontzi	——	isil
ireki	——	itxi
alai, irribarretsu	——	triste, goibel
zirti-zartako	——	lotsati, herabeti
lagunkoi, elkarkoi, soziagarri	——	elkartezin, ardigaldu, bakarti
dotore, fin, arretatsu	——	zakar, basto, zarpail, arrunt
bigun, onbera	——	anker, gogor, krudel,gupidagabe
umoretsu, txispagarri, grazioso	——	aspergarri

3. faktorea MOLDAERAZKO DIMENTSIOA

Dimentsio hau inguruari egokitzearekin lotuta dago. Bariantzaren % 9.3a azaltzen du. Hemen ikus daitezke inguruneari egokitzeko ahaleginean arrakasta edo porrota adierazteko erabiltzen diren adjektiboak. Lorpen-nahiarekin lotu daiteke, lanak egoki egiteko nahiarekin, kontziente izatearekin.

6. Taula

ardurati, kezkati, zuhur	——	baldres, baldragas, arduragabe
serio, nenazko, formal, serios	——	buruarin, txoriburu
langile, gogatsu, aktibo, maratz	——	alfer, nagi, pasibo
zentzudun, sano	——	ero, zoro, zentzugabe
lotsati, herabeti	——	zirti-zartako

heldu, umo	——	heldugabe
zuzen	——	bihurri, oker, makur
adeitsu, kunplitu, gizalegetsu	——	lotsagabe, aurpegihandi

4. faktorea ESTABILITATE EMOZIONALEZKO DIMENTSIOA

Dimentsio hau estabilitate emozionalari dagokio. Hemen agertzen diren ezaugarriak, inguruaren menpe baino gehiago, herentziaren menpe egoten bide dira, fisiologiak baldintzatuta. Hala ere, faktorearen garrantzia ez da handia, bariantzaren %6.2a soilik azalduz.

7. Taula

urduri, artega	——	lasai
burugogor, setati, kaskagogor	——	arrazonagarri, arrazoizko
haserrakor, hirakor, suminkor	——	bare, haserregaitz
ero, zoro, zentzugabe	——	zentzudun, sano
bizi, bizkor, zalu	——	geldo, motel
petral,erreboltoso, zalapartari	——	sosegatsu

Ikusitako lau dimentsioen bitartez, bariantzaren % 60a azal daiteke, beste % 40a azaldu gabe geratzen delarik. Analisia egin genuenean, faktore gehiago atera ziren eta, garrantzi kualitatibo handia izan zezaketen arren (hori ezin da jakin guk erabilitako tresnekin), baztertu egin genituen, bariantzaren oso alde txikia azaltzen zutelako.

Lanaren ondorio eta mugak

Analisi deskribatzailea dugu eta egin ditugun deskribapenetan daude ondorioak. Hala ere, azken zatian ateratako dimentsioek aspalditik psikologo famatu desberdinek kultur anitzetan ateratakoekin zerikusi handia dutela azpimarra daiteke, eta horietan, hain zuzen, murgilduko gara.

Lehen dimentsioa (4. taula) orokorrena da eta zaila suertatu zaigu literaturan agertzen diren nortasunari buruzko dimentsioekin parekatzea. Hor azaltzen diren adjektibo batzuk egoera psikologikoak deskribatzeko baino gehiago, jokabideak etikoki baloratzeko erabiltzen dira (*jator, zintzo, egiati, onbera...*). *Zintzo* eta *jator* izateko eskakizunaren bitartez kulturak esaten digu zer egin behar dugun oinarriz-

ko baloreak mantentzeko eta, bide batez, marko kultural horretan, geure buruarekin eroso sentitzeko. Baita pisu handikoak dira ere afektuekin lotutako izenlagunak (*sentibera, samur, xarmangarri...*) eta heziketa zuzen batekin lotutakoak (*umil, fidakor, aditsu...*). Adjektibo-nahasketa honen ondorioz, dimentsioa izendatzerakoan, zalantza handiak izan genituen eta izen nahiko orokorra aukeratu genuen. Hala ere, "Bost-Handiak" (Big-five), paradigmaren bigarren faktorearekin antza handia du, "Agreebleness" delako faktorearekin, konformitateaz edo adostasunaz itzul daitekeena. "Bost-Handiak" paradigmaren ikerketen berrazterketa Digmanek (1990) egin du, nortasunaren teorilarien aldetik, kritika onak jaso dituelarik.

Bigarren dimentsioa (5. taula) argiagoa da eta aspalditik agertzen da literaturan. Jungek (1923) aipatu zuen lehenengoz indarrez. Cattellentzat (1957) bigarren mailako faktorea izan zen (Exvia-Invia). Eysenckek (1985) esan zuen kanporakoitasuna eta neurotizismo faktoreekin nortasunaren bariantza modu esanguratsuan azal zitekeela. "Bost-Handiak" paradigmaren arabera Barnekoitasuna-Kanporakoitasuna ezaugarria lehenengo faktorea da. Gure ikerketan oso argi ikusten da dimentsioa eta, 2. taulan ageria denez, dimentsioa osatzen duten adjektiboak (*ireki, alai, berritsu...*) pisu handikoak dira.

Hirugarren dimentsioa moldaerarekin lotu dugu. Dimentsioan azaltzen diren adjektiboak (6. taula), bizitzan arrakasta edo porrota adierazteko erabiltzen dira. "Bost-Handiak" paradigmaren hirugarren faktorearekin ("conscientiousness") zerikusi handia du; *ardurati, serio, langile, zentzudun, heldu*, etab. adjektiboak oso ondo sar daitezke faktore horren barruan.

Laugarren dimentsioari (7. taula) dagokionez, estabilitate emozionalezko dimentsioa izendatu dugu, eta berau ere "Bost-Handiak" paradigman laugarren faktore bezala azaltzen zaigu. Eysenckek proposatutako neurotizismo ezaugarriarekin ere lotura du.

Goian ikusi dugunez, gure ikerketan ageritako lau dimentsioak, gaur egun indar handia duten nortasunaren teoria faktorialistek aipatu dituzte. Izan ere, beste kultura desberdin batzuetan eta beste zenbait analisi lexikografikoetan azaldutakoa errepikatu egin da, pertsonak sailkatzeko antzeko ikuspuntuak eta izenlagunak erabiltzen ditugula baieztatuz.

Azken zatian lanaren mugei helduko diegu, antzeko azterketetan kontuan izan beharko liratekeela baiteritzogu.

Lehenengo eta behin, laginaren ezaugarriak aztertuko ditugu. Alde batetik, probak egin dituzten guztiak unibertsitarioak dira, Psikologi Fakultatekoak, ondorioz gazteak eta, gehienbat, emakumezkoak. Ezin dugu inolaz ere esan lagina kulturkideen errepresentatiboa denik, baina beharbada, bai euskal emakume eskoladu-

nena.

Bigarrenik, jadanik aipatu dugun bezala, nobelen aukeraketa oso pertsonala izan da, autore batzuk oso errepresentaturik egon dira (gehiegi, beharbada) eta beste batzuk ez dira azaltzen. Euskaraz erraz irakurtzen duten pertsonak ugariak ez dira, unibertsitarioak izan arren, eta gainera unibertsitario azkarrek badakite aukeraketa erraza egiten asignatura gainditzeko asmoz. Hortaz, irakurtzeko zailtasun handiak dituzten nobelak ez dira agertzen, eta posible da hauexek, hain zuzen, lexikoari begira aberatsenak izatea (hortik zailtasuna).

Amaitzeari, hasi garen moduan ekingo diogu. *Izanak izena badu, izenak ere izana du*. Euskal psikologiari heldu nahi badiogu izenak aztertu beharko ditugu, izanak errazago ulertzeko.

Erreferentziak

Bannister, D. (1960): "Conceptual structure in thougth-disordered schizophenics", *Journal of Mental Science, 106*, 1230-1249.

Bonarius, H. (1977): "The interaction model of communication: Through experimental research towards existential relevance", A.W. Landfield eta J.K. Cole (Ed), *Nebraska symposium on motibation 1976: Personal Construct Psychology (26 Bol.)*, Lincoln, NE/London: University of Nebraska Press.

Cattell, R. B. (1957): *Personality and motivation structure and measurement*, New World, Yonkers.

Digman, J.M. (1990): "Personality Structure: Emergence of the Five-Factors Model", *Annual Review of Psychology, 41*, 417-440.

Eysenck, H.J., eta Eysenck, M.W. (1985): *Personality and Individual Differences*, New York: Plenum Press.

Feixas, G. (1988): *L'anàlisi de construccions personals en textos de significació psicológica*, tesi doktoral mikrofitxatua (z.328), Barcelona: Publicacions Universitat de Barcelona.

Kelly, G. A. (1955): *The psychology of personal constructs*, Norton, New York.

Jung, C. G. (1923): *Psychological Types*, Routledge eta Kegan Paul, Londres.

Landfield, A. W. (1977): "Interpretive man: The enlarge self-image", A.W. Landfield eta J.K. Cole (Ed), *Nebraska symposium on motibation 1976: Personal Construct Psychology (26 Bol.)*, Lincoln, NE/London: University of Nebraska Press.

Rosch, E. (1975): "Cognitive representations of semantic categories". *Journal of Experimental Psychology: General, (104 Bol.)*, 3, 192-233.